

Laburrak

ZAINTZA ETA ETORKIZUNA HELBURU ORDIZIAN

2030ean ordiziarren %30ek baino gehiagok 65 urte beteta izango dituzte. Honen aurrean, EAJ-PNVk ikerketa eta prozesu bat eskatzen dio udalari herriaren bilakaera demografikoa eta egungo baliabideak aztertzeko. Helburua da zahartze aktiboa, autonomia eta ongizatea bermatzea, eta mendekotasunari arreta duin eta hurbil batekin erantzuteko zerbitzuak egokitzea.



ORDIZIAKO AUZOAK, BERRIKUNTZA PREMIA

Ordiziako auzoak gero eta utzia-goak daude. Ordiziarren onerako, berrikuntzak proposatzen ditu EAJ-PNVk zenbait auzotan, adibidez, Altamiran igogailua eta Bustuntza pasealekuko inguruan txukunketak.

Los barrios de Ordizia están cada vez más abandonados. El PNV propone reformas para atender a las vecindades del pueblo, como, por ejemplo, un ascensor en Altamira y adecentar el paseo y la plaza de Bustuntza.

LANDA BIDEAK EGOERA TAMALGARRIAN

EH Bilduk ez ditu bete 2026rako adostutako inbertsio eta garbiketa konpromisoak. Esaterako, Egutera, Arramendi eta Lazkaomendik segurtasun arrisku kezkarriak dituzte, mantentze lanak ez direlako egin.

EH Bildu sigue sin cumplir con lo acordado para 2026 de mejora y cuidado de los caminos públicos. Egutera, Arramendi y Lazkaomendi presentan un lamentable estado por falta de mantenimiento.



Egin beharreko hobekuntzak

IRISGARITASUNA BEHARRA DA, EZ LUXUA

EAJ-PNVk irisgarritasun unibertsala bermatzea eskatu dio udal gobernari, udalerriko zenbait puntutako akatsak zuzentzeko, esaterako Majori kiroldegirako sarbidea edo Garagartzako eskailerak.

EAJ-PNV exige al Gobierno municipal que garantice la accesibilidad universal en distintos puntos del municipio, como por ejemplo el acceso al polideportivo Majori o las escaleras de Garagartza.

ARGIZTAPEN ARAZOAK ETA SEGURTASUN FALTA

EAJ-PNVk azpimarratu du argiteria publikoak, hala nola farolen kokapen egokia, argiaren bizitasuna edo aldizkako mantentzea, ez direla behar bezala kudeatzen ari.

EAJ-PNV subraya que aspectos claves del alumbrado público como la correcta ubicación de las farolas, la intensidad de la luz o el mantenimiento periódico no se están gestionando de forma adecuada.

BIZIKIDETZA-ORDENANTZAREN BEHARRA

Jeltzaleek Bizikidetzarako Ordenantza bat proposatu dute espazio publikoaren erabilera arduratsua bermatzeko, elkarbizitza hobetzeko, herritarren arteko errespetua indartzeko eta udalerriko ingurunea babesteko.

El PNV propone una Ordenanza de Convivencia para garantizar el uso responsable del espacio público, mejorar la convivencia, reforzar el respeto y proteger el entorno urbano del municipio.

Ba al zenekien? • ¿Sabías que...?

7 urtetan 100.000€ gorde dira Hiri Antolaketako Plan Orokorra berritzeko, baina erabili ez. Diru hori ez inbertitzeak mugatu egiten du Ordizian etxebizitza berriak egiteko aukera.

Durante 7 años se han reservado 100.000€ para la renovación del Plan General de Ordenación Urbana, que no han sido ejecutados, lo que limita la posibilidad de desarrollar nuevas viviendas.

Zure iradokizunak
bidali eta gurekin
harremanetan jartzeko

eajpnvordizia



Eaj-Pnv Ordizia



ordiziaeajpnv@gipuzko.eus



<https://www.gipuzko.eus/es/ordizia/>



zurekin

02

2026 · Uztaila

ORDIZIA



EAJ-PNVk herri-proiektu berritua dauka, Ordizia geldialditik atera eta etorkizunerako prestatzeko.

El PNV propone activar la vivienda, limpieza y cuidado de infraestructuras necesarias para Ordizia

EH Bildu ezer egin gabe dabil

UTZIKERIA KALEEN GARBIKETAN ETA JARDUERA PLAN INTEGRAL BATEN BEHARRA



EH Bildu ez da gai udal baten oinarritzko zerbitzu diren herriko garbiketa eta hiri-mantenua behar bezala kudeatzeko. Jeltzaleek neurriak eskatu genituen urrian garbiketa indartzeko baina udal gobernuak geldirik. Ondorioz herria utzikeria hau jasaten ari da. EH Bilduk ez du erakutsi ordiziarren bizi-kalitatean eragiten duten arazoak konpontzeko gaitasunik eta, hala ere, bere buruari txalo jotzen dabil. Talde jeltzaleak dio behar-beharrezkoa dela berehalako garbiketa plan integral bat, asteburu eta jai eguneetarako barne, eta mantenimendu egonkor bat kontuan izango duena.

EH Bildu es incapaz de gestionar de forma efectiva servicios municipales esenciales como la limpieza y el mantenimiento urbano. La parálisis del Gobierno municipal hace que los problemas de limpieza del municipio se acentúen. EH Bildu muestra su incapacidad para solucionar los problemas que afectan a la calidad de vida de las y los ordiziaras, cayendo en la autocomplacencia. Por ello, el PNV exige la puesta en marcha de un plan integral de limpieza que incluya refuerzos tanto en fines de semana como festivos y una estrategia estable de mantenimiento.



Utzikeria eta
paralisia



EH Bildu no soluciona



Garbiketa indartzea
beharrezkoa



Majori hondatzen



Deterioro de las
instalaciones



Inacción de EH Bildu

Kudeaketarik gabe gero eta hondatua

MAJORI KIROLDEGIA BIRGAITZEKO JARDUERA PLAN INTEGRAL BATEN BEHARRA

EAJ-PNVk Majori kiroldegiaren egungo kudeaketa eredua baztertzen du, egiturazko gabezia eta norabide ezagatik. Instalakuntzen mantentze-lanak ez dira behar bezala gauzatzen, antolaketa eta ardurak ez daudelako ongi zehaztuta. Ondorioz, kiroldegia hondatzen ari da: ur beroaren hornidura arazoak daude, itoginak, klimatizazio akatsak, dutxak ez dabilta ondo eta segurtasun arriskuak. Gainera, legionelaren inguruko araudia ez betetzeak egoera are kezkagarriagoa bihurtzen du. Kudeaketa eta gardentasun eza sufritzen ari dira ordiziarrek, eta bereziki erabiltzaileak.

2022 eta 2023ko auditoretzaren ondoren, EAJ-PNVk 2024 eta 2025ekoak eskatu ditu. Bien bitartean, Majori S.L.k aurrera egiteko udalaren ekarpen ekonomiko gero eta handiagoak behar ditu, azken 3 urteetan %64 handituta. Kirol gunearen etorkizuna bermatzeko, EAJ-PNVk premiazko neurri zuzentzaileak eta kudeaketa eredu eraginkor eta gardena eskatzen ditu.

EAJ-PNV critica la gestión del complejo deportivo Majori por el desgobierno y la falta de acción, deterioro de instalaciones, riesgos de seguridad y falta de transparencia. Denuncia, además, el aumento del 64% de la aportación municipal en los últimos 3 años y exige auditorías, cálculo de costes y medidas urgentes.



Bi agintaldi geldirik

ETXEBIZITZA ETA ETORKIZUNA BERMATZEKO EZINBESTEKOA DA PLAN OROKORRA AKTIBATZEA

EH Bilduk 2017tik geldirik dauka Ordiziako Hirigintza Plan Orokorra (HAPOa), azken bi agintaldietan inolako aurrerapausorik eman gabe. Utzikeria horrek Ordiziaren etorkizunerako ondorioak dituela salatu dugu jeltzaleek, bereziki etxebizitza berrien garapenari dagokionez. EAJ-PNV-ren ustez lehenbailehen eguneratu beharra dago hirigintza arautegia, Ordiziako antolaketa era ordenatu eta jasangarrian planifikatzeko, eta etxebizitza gabeziari anbizioz erantzuteko.

HAPOa da hirigintza garapenerako tresna nagusia, eta geldialdiak Ordiziak dituen beharrei erantzutea atzeratzen du. Joseba Aranburu bozeramaile jeltzaleak dio 2026ko aurrekontuak babesteko baldintza nagusietako bat planaren berraktibazioa zela, EH Bilduk ez duela agindutakoa bete. Hitzekoa ez eta gainera ekintza falta, udal gobernuak.



EH Bildu tiene paralizado el Plan General desde 2017. Dos legislaturas sin avances, lo que afecta directamente al desarrollo de vivienda y al futuro urbanístico de Ordizia. Reclamamos su actualización urgente, herramienta clave de planificación sostenible. De hecho, la reactivación del plan era una condición imprescindible acordada para 2026, compromiso incumplido por el gobierno municipal de EH Bildu. Es hora de pasar a los hechos.



HAPOa geldirik
2017tik



¿A qué espera
EH Bildu?



Ordiziaren etorkizuna
jokoan